

# 2023/2024

## Aisialdiko hezitzaile ikastaroa

Ikasturte honetarako ere **Aisiola Hezitzaile Eskolak, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaile izateko ikastaroak** antolatuta ditu.

ASIOLAREN xedea da, euskara, gizartea eta ingurugiroarekiko errespetua funtsezko balioak direla ulertuta, jolasa nahiz sormena ikasteko eta garatzeko berriarazko tresnatzat hartuz, hezkuntza ez-formalaren bidez **kalitatezko prestakuntza euskalduna** eskaintzea.

Gure ikasleek etorkizunean lan-munduan erantzunkizunez, autonomiaz eta arduraz jarduteko gaitasuna lortzeko egiten dugun lan, balio hauetan oinarrituz: **Euskalduna, ingurumenarekin konprometitua, hurbilekoa, profesionala eta bizikidetzaren erdigunean jartzen duena.**

### NORENTZAT

**16 urtetik gorako ikasleentzat** (DBHko titulua izatea beharrezkoa da)

### PREZIOA

Ikastoletako ikasleek: **430€**.  
Gainerakoek: **450€**.

### NOIZ

**Urriak 20tik maiatzak 14ra**  
(Ostiralero, 15:30-20:30)

**2024ko urtarrilak 12tik 2025eko maiatzak 9ra**  
(Bi ostiraletik behin, 15:30-20:30)

### IZEN EMATEA

Urrian hasten den ikastaroa:  
**Irailak 4tik urriak 2ra.**

Urtarrilean hasten den ikastaroa:  
**Azaroak 1etik abenduak 1era.**

aisiola



ikastolenekarte

# Ikastaroaren inguruko informazio orokorra

Ikastaroa bi atalez osatuta dago: atal teorikoa eta atal praktikoa. Atal teorikoak guztira 150 ordu ditu eta 3 modulutan bereizten da. Atal praktikook berriz 160 ordu ditu eta behin atal teorikoa amaitutakoan egin behar da. Atal praktikoa egin ahal izateko, praktikak egingo diren urte horretan 18 urte bete beharko ditu ikasleak.

Hori kontuan hartuta, Aisiolak hezitzaile ikastaroa egiteko hiru aukera eskainiko ditu 2023-2024 ikasturtean: batxilergoko bigarren mailako ikasleentzako, batxilergoko lehenengo mailako ikasleentzako, intentsiboa.

## Batxilergoko bigarren mailakoentzako ikastaroa

Batxilergoko bigarren mailan dauden ikasleei edo 17 urtetik gorako ikasleei bideratutako ikastaroa da. Ikastaro hau, ikasturte baten egiten da urritik maiatzera eta saioak ostiralero izaten dira.

- 1. MODULOA (60 ordu):**  
2023ko urritik 2024ko urtarrilera
- 2. MODULOA (30 ordu):**  
2024ko otsailetik 2024ko martxora
- 3. MODULOA (60 ordu):**  
2024ko martxotik 2024ko maiatzera

## Batxilergoko lehenengo mailakoentzako ikastaroa

Batxilergoko lehenengo mailan dauden ikasleei edo 16 urtetik gorako ikasleei bideratutako ikastaroa da. Ikastaro hau, bi ikasturtetan egiten da urrian hasi eta hurrengo urteko maiatzean amaitzen da. Saioak bi ostiraletik behin izaten dira.

- 1. MODULOA (60 ordu):**  
2024ko urtarriletik 2024ko ekainera
- 2. MODULOA (30 ordu):**  
2024ko irailetik 2024ko abendura
- 3. MODULOA (60 ordu):**  
2024ko abendutik 2025eko maiatzera

## Ikastaro intentsiboa

16 urtetik gorako ikasleei bideratutako ikastaroa da. Ikastaro honetan, ekainean bi-hiru astez modu intentsiboan zati teorikoko 90 ordu egiten dira, falta den zatia irailetik maiatzera egiten da. Ekainean saioak astelehenetik ostiralera izaten dira, irailetik maiatzerako saioak bi ostiraletik behin izaten dira.

- 1. MODULOA (60 ordu):**  
2024ko ekaina
- 2. MODULOA (30 ordu):**  
2024ko irailetik 2024ko abendura
- 3. MODULOA (60 ordu):**  
2024ko abendutik 2025eko maiatzera